



## Kale Zaharreko emakumiak kartetan

**S**eguru asko batek baiño gehixagok ikusitta eukiko dau fotografia hau, liburu eta entziklopedietan iñoiz agertu da-eta. Hala eta guztiz be, sail honetara ekarteko modukua dala uste dogu. Horretarako arrazoiak era askotakuak dira: bestiak beste, argazkixa bera jeneraziño gaztiendako ezezaguna izango da; sasue bateko jantzizak eta ohitturak ederto erakusten dosku; eta fotografiarien gaiñeko datu eta argibide barrixak eskintteko aukeria dakogu orain.

Irudi honek neri betik gogora ekarten dost XIX. gizaldiko J. B. Elizanburu poeta lapurtarrak moldau eben kanta politta, Euskal Herri osuan zabaldu zana:

*Iragan besta biharamunean,  
berek dakiten xoko batean,  
lau andre, hiru mutxurdin,  
bat alarguna, jarririk itzalean,  
harri xabal bat belauenen gainean,  
ari ziren ari ziren trukean.*

Oñatiko honetan eztira lau emakume bost baiño, kartetan lau dabiltzela emuten dau, mahaixa dakoi harri zabalaren ordez, eta eztakigu zertan diharduten trukian ala musian. Dakiguna da **Kale Zaharrekuak** dirala eta *Txikiñeko* etxeaurrian dagozela, gaur egungo kale bereko 52. numeruaren parian. Lehengo etxia bota eta barrixa jaso zan orain dala hamarkada batzuk.

Dana dala, inportantiena da orain arte emakume ezezagunak ziran horrein izenak edo, gutxienez, ezizenak jakittekko bidia izan dogula. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

**Maria Surluze**; **Kaietana Madinabeitia Txintxurreta** araoztarra, Ursularen amagiñarrebia; **Kattalin (X.)**; **Ursula Uribetxeberria Balantzategi**, aitta aretxalbatarra eukana, guk *Txikiñeko* etxe horretan bizitten ezagutu geben **Tomasa Elortzaren ama**; eta **Patruxi (X.)**. Ikusten dozuenez, hutsuna batzuk badagoz oraindiok, baiña ia, danon artian aztertuaz, argiketan dittugun.

J. E.

Argazkixa Gemma Madinazkoitia eta Tomas Igartuaren bidez eskuratu dogu. Argibiderik gehixenak, berriz, Gemmari bere amak, Ines Urtzelaik, emun otsan. Tomasa Elortzaren alabia zan Ines. Honen lehengusuak **Karmen Sabando Elortzak** eta **Kale Zaharreko Maritxu Erostarbek** ere egin dituzte euren ekarpentxoak. Nunbaiten irakurri dogu fotografia garai bateko *Fotolux* enpresiak 1918xan ataratakua dala. Jantzizak-eta kontuan izanda, zaharragua izan leikiela pentsaiten xaku guri. Milla esker berau kaleraketako samurtasunak eta informaziñuak eskuratu doskuzuen guztioi!

Zuzenketatxo bat fan dan hillabeteko argazkixan: beheko illaran, erdi inguruan, lurrian jarritta agiri dan **Rosario Korkostegi**, gero karidadeko monja egin zana, oraindiok bizi dala esan dosku bere illoba **Eduardo Korkostegik**. Eskerrik asko.